Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko irailaren 19a, asteartea — 181 — Martes, a 19 de septiembre de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANOETAKO UDALA

*Udal Larrialdiko Harrera-Zerbitzua arautzen duen Ordenantzaren behin betiko onespena.*

2023ko uztailaren 18an Udalbatzak Udal larrialdiko harrera-zerbitzua arautzen duen Ordenantzari hasierako onespena eman zion, espedientea jendaurrean jarri zen 30 eguneko epean, 2023ko abuztuaren 1etik irailaren 6a bitarte. Aipatu epean inolako erreklamaziorik ez eta oharpenik jaso ez denez, behin betiko onartutzat jotzen da eta osoki bera argitaratzen da, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa beteaz, 65.2 artikuluan ezarritako epea burutzen denean.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

*Udal Larrialdiko Harrera Zerbitzuaren Ordenantza.*

ZIOEN AZALPENA

Azken urteetan Gizarte Zerbitzuetako Sailean alojamendurako beharra duten pertsona eta familien eskaerak jaso dira eta horrek agerian utzi du mota horretako baliabide bat sortzeko eta arautzeko premia dagoela.

Gizarte larrialdietarako etxebizitzaren xedea, egoera kritikoei erantzun nahi dien larrialdiko harrera zerbitzua aldi baterako arautzea da.

Etxebizitza lagatzeak, zerbitzu publiko bat eskaintzen dela esan nahi du; eta horrexegatik, Herri Administrazioen zerbitzuen eskaintza arautuko duen araubidea bete beharko da; alegia, aldi baterako larrialdietarako etxebizitza erabiltzen duen pertsonak Anoetako Udalarekin edo zerbitzua kudeatuko duen erakundearekin duen harremana ez da alokairuari dagokion figura juridikoa izango. Etxebizitza inola ere ez da lagako mugarik gabeko aldi baterako.

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 42. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Udalen eskumena izango da, bakoitzari dagokion udal barrutian, ondorengo funtzioak betetzea: Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuak hornitzea.

Era berean, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoak, 33. 2.a) artikuluan udal eskumeneko zerbitzuak, prestazioak eta laguntza ekonomikoak garatzen ditu, oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuen artean, besteak beste, alojamendu zerbitzuak/harrera etxebizitzak egonik.

Ordenantza honetan, beraz, gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxebizitza arautuko da. Etxebizitza honetan alojamendua eskaintzen zaie iraupen laburreko egonaldia behar

## AYUNTAMIENTO DE ANOETA

*Aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora del Servicio Municipal de Acogimiento de Urgencia.*

Aprobado inicialmente por el Pleno del Ayuntamiento en sesión ordinaria celebrada el día 18 de julio de 2032, la ordenanza reguladora del servicio municipal de acogimiento de urgencia, y habiéndose sometido a información pública durante el plazo de 30 día a contar desde el 1 de agosto al 6 de septiembre de 2023, no se ha presentado reclamación u observación alguna a la misma, por lo que se entiende aprobada definitivamente y se publica íntegramente a efectos de dar cumplimiento a lo preceptuado en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local, entrando en vigor la mencionada ordenanza, una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente hábil a la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

*Ordenanza del Servicio Municipal de Acogimiento de Urgencia.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En los últimos años se han recibido en el Departamento de Servicios Sociales las demandas de personas y familias con necesidad de alojamiento, lo que ha puesto de manifiesto la necesidad de crear y regular un recurso de este tipo.

La finalidad de la Vivienda de Emergencia Social es la regulación temporal del servicio de acogimiento de urgencia que trata de dar respuesta a situaciones críticas.

La cesión de vivienda supone la prestación de un servicio público, por lo que se estará al régimen que regule la oferta de servicios de las Administraciones Públicas, es decir, la relación de la persona usuaria de la vivienda de emergencia temporal con el Ayuntamiento de Anoeta o con la entidad gestora del servicio no será una figura jurídica propia del alquiler. En ningún caso se cederá la vivienda por tiempo indefinido.

El artículo 42 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, establece que corresponde a los Ayuntamientos, en su respectivo término municipal, la competencia para la provisión de los servicios sociales de atención básica del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Asimismo, el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en su artículo 33. 2.a) desarrolla los servicios, prestaciones y ayudas económicas de competencia municipal, existiendo entre los servicios sociales de atención básica, entre otros, servicios de alojamiento/pisos de acogida.

En esta Ordenanza se regula, por tanto, un piso de acogida para atender situaciones de emergencia social. En esta vivienda se ofrece alojamiento a personas y unidades convivenciales

EK\CV GAO-I-2023-06696

duten pertsonei eta bizikidetza-unitateei, gizarte-larrialdiko edo emergentziazko egoera batek eragindako alojamendu-gabeziari aurre egin ahal izateko.

Araua, urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen behar, eraginkortasun, proportzionalitate, segurtasun juridiko eta gardentasun printzipioetara egokitzen da.

Ordenantza honen beharrezkotasuna, Anoetako Udaleko larrialdiko harrera-etxebizitza zerbitzuaren prozedura arauak zehaztean datza, ahalik eta kostu baxuen eta eraginkortasun handien duen eta zerbitzuaren errealitatera egokitzen den prozedura arin bat ezarriz. Araua bat dator proportzionaltasun printzipioarekin, funtzionamendu egokirako beharrezko erregulazioa dakarrelako.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Xedea.*

Ordenantza honek egoera kritikoei erantzun nahi dien larrialdiko behin-behineko harrera zerbitzua arautzea du helburu.

*2. artikulua. Zerbitzuaren definizioa.*

a) Zerbitzu honek ostatu ematen die gizarte larrialdiko edo gizarte-premiazko egoera baten ondorioz ostaturik ez izateari aurre egin ahal izateko edo genero-indarkeriaren egoeratik bizi-berritu eta egoera hori gainditu ahal izateko iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonei eta bizikidetza-unitateei.

b) Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da eta harrera-etxean ez da eskainiko ezta esleituko ere etengabean langilerik. Halere, Anoetako Udaleko Gizarte Zerbitzuek jarraipena egingo die pertsonei, etxebizitza beharra eraman duten egoerei eta, hala bada kasua, pertsona edo familia unitate bakoitzari dagokion arreta pertsonaleko planari.

c) Ordenantza honen ondorioetarako, honakoak izango dira a) atalean aipatutako egoerak:

— Etxeko indarkeria edota genero indarkeria ematen den kasuetan. Azken egoera horretan, beti ere norberaren edota etxebizitzan egon daitekeen pertsonen segurtasuna arriskuan jarri dezakeen egoerarik ez badago.

— Udalak harrera behar duen pertsonaren edo pertsonen etxebizitza dagoen eraikinaren berehalako hondamendi egoera adieraztea.

— Familia arazo larria, pertsonen segurtasun fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duena.

— Hondamendiak, suteak, uholdeak eta bizikidetza unitatearen egoitzatzat erabiltzen den eraikina erabilezin bihurtzen duten antzeko fenomenoak.

— Erabiltzaileak egunerokotasunari aurre egiteko zailtasunak izatea eta etxebizitzan irisgarritasun arazoak egotea.

— Bestelako larrialdi-egoerak, gizarte txostenaren bidez behar bezala justifikatzen direnak.

II. KAPITULUA

ONURADUNAK

*3. artikulua. Onuradun izateko betekizunak.*

Anoetan bizi eta erroldaturik dauden pertsona eta bizikidetza unitate guztiek erabili ahal izango dute zerbitzua. Horretarako, gutxienez 6 hilabeteko antzinatasun jarraitua izan beharko dute erroldan, eta lehen aipaturiko artikuluan zehaztutako egoeraren batean egon beharko dute.

que necesitan una estancia de corta duración para hacer frente a la carencia de alojamiento por una situación de emergencia social o urgencia.

La norma se ajusta a los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica y transparencia de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

La necesidad de esta Ordenanza radica en la determinación de las normas de procedimiento del servicio de pisos de acogida de urgencia del Ayuntamiento de Anoeta, estableciendo un procedimiento ágil que sea lo menos costoso y más eficaz posible y se adecue a la realidad del servicio. La norma es acorde con el principio de proporcionalidad, pues implica la regulación necesaria para su correcto funcionamiento.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

La presente Ordenanza tiene por objeto regular el servicio de acogimiento provisional de urgencia que pretende dar respuesta a situaciones críticas.

*Artículo 2. Definición del servicio.*

a) Este servicio ofrece alojamiento a personas y unidades convivenciales que precisan de una estancia de corta duración para poder hacer frente a la carencia de alojamiento como consecuencia de una situación de emergencia o urgencia social, o para poder recuperarse y superar la situación de violencia de género.

b) Se trata de un servicio de baja intensidad asistencial en el que no se ofrecerá ni se asignará personal de forma continuada en el piso de acogida. No obstante, los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Anoeta realizarán el seguimiento de las personas, de las situaciones que han llevado a la necesidad de vivienda y, en su caso, del plan de atención personal que corresponda a cada persona o unidad familiar.

c) A los efectos de la presente Ordenanza, las situaciones mencionadas en el apartado a) serán las siguientes:

— En los casos de violencia doméstica y/o de género. En esta última situación, siempre que no existan situaciones que puedan poner en peligro la seguridad propia o de las personas que puedan encontrarse en la vivienda.

— Declaración del estado de ruina inminente del edificio en el que se encuentra la vivienda de la persona o personas acogidas por el Ayuntamiento.

— Problema familiar grave que pone en riesgo la seguridad física o emocional de las personas.

— Catástrofes, incendios, inundaciones y fenómenos similares que inutilicen el edificio que sirve de residencia a la unidad de convivencia.

— Dificultades para afrontar la vida cotidiana de la persona usuaria y problemas de accesibilidad en la vivienda.

— Otras situaciones de emergencia debidamente justificadas mediante informe social.

CAPÍTULO II

PERSONAS BENEFICIARIAS

*Artículo 3. Requisitos para obtener la condición de persona beneficiaria.*

El servicio estará abierto a todas las personas y unidades convivenciales que residan y estén empadronadas en Anoeta. Para ello deberán tener una antigüedad ininterrumpida mínima de 6 meses en el padrón de habitantes y encontrarse en alguna de las situaciones especificadas en el artículo anteriormente mencionado.

EK\CV GAO-I-2023-06696

Bestelako larrialdi-egoerak, gizarte txostenaren bidez behar bezala justifikatzen direnak.

*4. artikulua. Zerbitzua erabiltzen dutenen eskubideak eta betebeharrak.*

Oro har, harreran hartutako pertsonek ondorengo betebeharrak izango dituzte, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen pertsonen eta profesionalen eskubideei eta betebeharrei eta iradokizun eta kexen araubideari buruzko Gutuna onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan aurreikusten direnak.

* Eskubideak:

— Etxebizitza erabiltzeko eskubidea.

— Norberaren izaera, giza duintasun eta intimitatearekiko errespetua. Ezingo da inor baztertu ez gizarte mailan, ez maila ekonomikoan, ezta maila moralean edo ideologikoan ere.

— Bakoitzak behar duen informazioa jasotzeko eskubidea, bai ahoz, bai idatziz.

— Prozesuarekin zerikusia duen informazio guztiaren konfidentzialtasuna, ezinbestekoa egiten duten lege eskakizunengatik izan ezik.

— Behar izanez gero, erabiltzaileek behar dituzten zerbitzuak eta prestazio sozialak kudeatuko dituzte Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileek.

— Erabiltzaileak bere etxebizitzako giltza edukitzeko eskubidea, indibidualizazio printzipioa bete ahal izateko. Halere, arduradunak ere giltzaren kopia bat izango du, beharrezkoa denean erabili ahal izateko.

— Etxebizitzan erroldatzeko eskubidea izango dute harrera-etxebizitzan dauden pertsonek.

* Betebeharrak:

— Sarrera eskatzeko eta harrera-etxebizitza erabiltzeko eta gozatzeko, araudi honetan ezarritako arauak betetzeko konpromisoari buruzko agiria sinatzea.

— Zerbitzu hauek erabiltzera bultzatu duen egoera aldatzeko beharrezkoak diren kudeaketa administratiboak edota judizialak edota beste edozein motatakoak egitea. Gizarte Zerbitzuen sailaren ustetan komenigarria baldin bada, neurri hauek Gizarte Zerbitzuak egingo duen esku-hartze planean zehaztu behar izango dira. Plan hau harrera kontratuaren eranskin gisa joango den eta kontratuaren parte izango den agiria izango da.

— Gizarte Zerbitzuetako sailak eskatutako dokumentazioa beharrezko epean aurkeztea.

— Seme-alabak edo ardurapeko beste pertsona batzuk zaintzeaz arduratzea.

— Harreran artatutako pertsonen artean arazoak edo desadostasunak baldin badaude, baliabidearen arduradun den erakundeak erabakitako neurriak betetzea.

— Elkarrenganako errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jarrera izatea, etxebizitzan bizi diren pertsonen eta auzokideen arteko elkarbizitza errazteko. Hala, bizilagunen erkidegoa arautuko duten arauak betetzeko obligazioa ere izango dute.

— Etxebizitzan erabiltzaileen esku dauden ekipamenduak eta tresnak egokitasunez eta errespetuz erabiltzea.

— Baliabidearen geletan, nahita edo arduragabekeria larriaren ondorioz egindako kalteengatik erantzutea.

— Anoetako Udalak baimendu ez dituen pertsonei etxebizitza okupatzen/erabiltzen ez uztea, pertsona horiekiko senidetasuna edo harremana edozelakoa delarik ere.

— Zerbitzuaren giltzen kopia ez egitea, eta giltzak beste pertsonaren bati ez lagatzea. Egonaldia bukatutakoan, giltzak etxebizitzaren ardura duen pertsonari eman beharko zaizkio.

Otras situaciones de emergencia debidamente justificadas mediante informe social.

*Artículo 4. Derechos y obligaciones de las personas usuarias del servicio.*

Con carácter general, las personas acogidas tendrán las siguientes obligaciones previstas en el Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de derechos y deberes de las personas y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

* Derechos:

— Derecho de uso de la vivienda.

— Respeto a la propia personalidad, dignidad humana e intimidad. Nadie podrá ser discriminado socialmente, económicamente, moralmente o ideológicamente.

— A recibir, tanto oralmente como por escrito, la información que precise.

— Confidencialidad de toda la información relacionada con el proceso, excepto por los requisitos legales que lo hagan imprescindible.

— En caso necesario, el personal de los Servicios Sociales de Base gestionará los servicios y prestaciones sociales que precisen las personas usuarias.

— A que la persona usuaria disponga de la llave de su vivienda para cumplir el principio de individualización. No obstante, la persona encargada también dispondrá de una copia de la llave para su uso cuando sea necesario.

— Las personas que se encuentren en el piso de acogida tendrán derecho a empadronarse en el mismo.

* Obligaciones:

— Suscribir un documento en el que se comprometa a cumplir las normas establecidas en la presente normativa en materia de solicitud de acceso y uso y disfrute del piso de acogida.

— Realizar las gestiones administrativas, judiciales o de cualquier otro tipo que sean necesarias para modificar la situación que ha llevado a la utilización de estos servicios. Cuando el Departamento de Servicios Sociales lo considere conveniente, estas medidas deberán concretarse en el plan de intervención que elabore el Servicio Social. Este Plan será un documento anexo al contrato de acogimiento que formará parte del mismo.

— Aportar en plazo la documentación requerida por el Departamento de Servicios Sociales.

— Encargarse del cuidado de los hijos e hijas u otras personas a su cargo.

— Cumplir las medidas acordadas por la entidad responsable del recurso en caso de problemas o discrepancias entre las personas atendidas en la acogida.

— Mantener una actitud de respeto mutuo, tolerancia y colaboración que facilite la convivencia entre las personas que habitan la vivienda y los vecinos y vecinas. Así, también tendrán la obligación de cumplir las normas que regulen la comunidad de vecinos.

— Utilizar de forma adecuada y respetuosa los equipos y herramientas que estén a disposición de las personas usuarias en la vivienda.

— Responder de los daños causados intencionadamente o por negligencia grave en las dependencias del recurso.

— No permitir la ocupación/uso de la vivienda a personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Anoeta, con independencia de su parentesco o relación con las mismas.

— No hacer copia de las llaves del servicio, ni cederlas a otra persona. Una vez finalizada la estancia, las llaves deberán ser entregadas a la persona responsable de la vivienda.

EK\CV GAO-I-2023-06696

— Etxebizitzan animaliarik ez edukitzea, txakur gidariei buruzko ekainaren 10/2007 Legean aurreikusitako kasuetan, edo baliabideaz arduratzen den erakundeak baimentzen dituen salbuespenezko kasuetan izan ezik.

— Etxebizitzan inolako irabazizko jarduerarik ez egitea.

— Higienearen aurkako materialik edota material arriskutsurik ez gordetzea. Ondorioz, debekatuta dago armak edukitzea.

— Legezkoa (alkohola, tabakoa) edo legez kanpoko den inolako substantziarik ez kontsumitzea.

— Zerbitzuan gertatzen diren kalte konponketa edo hobekuntza premia guztiak Gizarte Zerbitzuei aditzera ematea. Ildo horretatik, erabat debekatuta egongo da edozein konponketa egitea, horretarako baimenik izan gabe. Jaiegunetan edo Udal Zerbitzuen funtzionamendu ordutegitik kanpo gertatzen diren larrialdietan bakarrik izango du pertsona onuradunak matxura bat bere kabuz konpontzeko aukera. Kasu horretan, ahalik eta azkarren emango da konponketaren berri, eta nolanahi ere, konponketa egin ondorengo 72 orduak igaro baino lehen.

— Etxebizitzan sartu eta ateratzen den momentuan, etxebizitzan dauden altzarien eta tresnen inbentarioa sinatuko da. Egonaldia bukatutakoan inbentarioa egiaztatuko da, baita etxebizitza eta altzariak egoera onean daudela.

## III. KAPITULUA

## ETXEBIZITZAN SARTZEKO PROZEDURA

*5. artikulua. Prozedura arrunta.*

* Hasierako eskaera.

Sartzeko hasierako eskaera Udaleko gizarte zerbitzutan egingo da, eta beraiek berehala tramitatuko dute, egoeraren larritasunak hala eskatzen duelako. Eskaera egingo da sinatutako eskaera-orri formalizatuaren bidez, eskatzaileak edo legezko ordezkariak sinatuta.

Prozesuaren edozein unetan, pertsona interesdunak bertan behera utzi ahal izango du eskaera eta idatziz adierazi beharko du. Ondorioz, eskaera artxibatu egingo da.

* Tramitazioa eta balorazioa.

Eskaeren azterketa eta balorazioa udaleko gizarte langileak egingo du, eta txosten bat egin beharko du ondorengoa zehazten:

— Alojamenduan sartuko den pertsonaren edo pertsonen identifikazio-datuak.

— Eskatzailearekin batera bizi ohi diren gainerako pertsonen identifikazio-datuak.

— Alojamendu eskaera eragin duten zirkunstantziak (arautegi honetako 2. artikuluan ezarritakoak).

— Harreran hartutako pertsonaren edo pertsonen egoera ekonomikoa.

— Alojamendua ematearen egokitasunari buruzko balorazioa. Balorazioa aldekoa bada, egonaldiaren iraupenari buruzko proposamena.

— Epe horretan egin beharreko esku-hartze profesionala.

— Bizitokia hartzen duenak bere gain hartzen dituen konpromisoak.

Gizarte langileak txostenean adierazten diren inguruabar guztiak ziurtatzeko beharrezkoa den agiri guztiak espedientean sartuko dira.

Premia edo larrialdi egoeretarako harrera-etxebizitzara sartzeko lehentasuna erabakitzeko, honako alderdiak hartuko dira kontuan:

1. Harreran hartu behar direnen artean adingabeak egotea.

— Carecer de animales en la vivienda, salvo en los supuestos previstos en la Ley 10/2007, de 10 de junio, de Perros Guía, o en los casos excepcionales que autorice el organismo responsable del recurso.

— No realizar actividad lucrativa alguna en la vivienda.

— Evitar el almacenamiento de materiales antihigiénicos y/o peligrosos. En consecuencia, queda prohibida la tenencia de armas.

— No consumir ninguna sustancia legal (alcohol, tabaco) o ilegal.

— Comunicar a los Servicios Sociales todas las necesidades de reparación o mejora que se produzcan en el servicio. En este sentido, queda terminantemente prohibida la realización de cualquier tipo de reparación sin la debida autorización. La persona beneficiaria sólo podrá proceder a la reparación de una avería en días festivos o en situaciones de emergencia que se produzcan fuera del horario de funcionamiento de los Servicios Municipales. En este caso, se comunicará la reparación a la mayor brevedad posible y, en todo caso, antes de las 72 horas posteriores a la reparación.

— En el momento de entrar y salir de la vivienda se firmará el inventario de mobiliario y enseres existentes en la misma. Al finalizar la estancia se comprobará el inventario y el buen estado de la vivienda y mobiliario.

## CAPÍTULO III

## PROCEDIMIENTO DE ACCESO A LA VIVIENDA

*Artículo 5. Procedimiento ordinario.*

* Solicitud inicial.

La solicitud inicial de ingreso se realizará en los Servicios Sociales Municipales, quienes la tramitarán de forma inmediata por la gravedad de la situación. La solicitud se realizará mediante instancia formalizada y firmada por la persona solicitante o su representante legal.

En cualquier momento del proceso, la persona interesada podrá desistir de su solicitud, debiendo manifestarlo por escrito. En consecuencia, se procederá al archivo de la solicitud.

* Tramitación y valoración.

El análisis y valoración de las solicitudes será realizado por el/la trabajador/a social municipal, quien deberá elaborar un informe en el que se especifique:

— Datos identificativos de la persona o personas que vayan a acceder al alojamiento.

— Datos identificativos del resto de personas que convivan habitualmente con la persona solicitante.

— Circunstancias que motivan la solicitud de alojamiento, establecidas en el artículo 2 de este Reglamento.

— Situación económica de la persona o personas acogidas.

— Valoración de la idoneidad del realojo. En caso de valoración favorable, propuesta sobre la duración de la estancia.

— La intervención profesional a realizar en dicho plazo.

— Compromisos que asume la persona alojada.

Se incorporará al expediente toda la documentación necesaria para que la el/la trabajador/a social certifique todas las circunstancias señaladas en el informe.

Para determinar la prioridad de acceso al piso de acogida en situaciones de necesidad o emergencia se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

1. La existencia de menores de edad entre los que deban ser acogidos.

EK\CV GAO-I-2023-06696

2. Bizitokia izateko beharra, erasorik edo tratu txarrik ez jasateko.

3. Etxebizitza beharra hondamendiak, aurri-adierazpenak edo kaleratzeak eragindakoa izatea.

* Ebazpena.

Eskaera Udal Erregistroan sartzen denetik kontatzen hasi eta gehienez sei hilabeteko epean egingo da ebazpena. Ebazpen horretan luzapenaren iraupena finkatuko da, baldin eta beharrizana egiaztatu ondoren, Gizarte Zerbitzuek aldeko txostena ematen badu.

Dena den, larrialdiko etxebizitzan sartu aurretik, onuradunak esku-hartze plan bat sinatu beharko du. Eskatzaileak agiri hori sinatzen ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

*6. artikulua. Larrialdiko jardunbidea.*

Beharra muturrekoa eta larria denean, gizarte langileak eskatzailea etxebizitzan berehala sartzea proposatu ahal izango du, behin dokumentua izenpetuta, eskabidea behar bezala bideratu ez bada ere. Hori egin bezain laster, lehen azaldutako ohiko jardunbidea abian jarriko da, behin betiko ebazpena emate aldera. Zerbitzuan sartu bezain laster ebazpena gizarte zerbitzuetako teknikariak txostenean ezarritako epean emango da.

Etxebizitzan premiazko prozeduraren bitartez sartu ostean, onuradunak espedientea abian jartzen edo tramitatzen laguntzen ez badu, edo espedientea tramitatu bitartean, ebazpena ezezkoa izan behar dela egiaztatzen baldin bada, zerbitzua uzteko betebeharra duela aditzera emango zaio. Horretarako, jakinarazpena gizarte langileak eginiko txostenean zehaztuko da zenbat eguneko epean utzi behar duen etxebizitza. Zerbitzua uzten ez baldin bada, erabiltzaileak derrigorrez kanporatuko dira, 9. artikuluan aurreikusita dagoen moduan.

*7. artikulua. Zerbitzuaren iraupena.*

Iraupena finkatzeko kontuan hartuko dira, batetik, kasuaren ezaugarriak, eta bestetik, zein aukera egon daitezkeen zerbitzua eman beharra eragin duen egoera konpontzeko. Oro har iraupena sei hilabetekoa izango da ebazpena ematen denetik. Oro har, 6 hilabeteko iraupena luzatu ahal izango da, organo eskudunaren ebazpen bidez. Ebazpen horretan luzapenaren iraupena finkatuko da, baldin eta beharrizana egiaztatu ondoren, Gizarte Zerbitzuek aldeko txostena ematen badu. Nolanahi ere, larrialdiko harrera-etxebizitzan egiten den egonaldiaren gehienezko iraupena ezin izango da 12 hilabetetik gorakoa izan.

IV. KAPITULUA

HARRERA IRAUNGITZEA

*8. artikulua. Harrera iraungitzea.*

Beharrezko espedientea izapidetu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuetako Sailaren proposamenari jarraiki, aurreikusitako eguna baino lehenago zerbitzua iraungitzeko erabakia hartu ahal izango da. Horretarako, organo eskudunak ebazpena emango du, interesdunari entzunaldia egiteko aukera eman ondoren.

Ebazpen hori onuradunari jakinaraziko zaio.

Zerbitzua ondorengo arrazoiengatik iraungiko da:

— Egonaldiaren denbora bukatzea.

— Erabiltzaileak zerbitzuari uko egitea.

— Heriotza.

— Zerbitzuaren prestazioa eragin zuen beharraren arrazoia desagertzea.

— Zerbitzua emateko kontuan izan diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.

— Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintzetako bat galtzea.

2. Necesidad de alojamiento para evitar agresiones o malos tratos.

3. Que la necesidad de vivienda derive de catástrofes, declaraciones de ruina o desahucios.

* Resolución.

La resolución se dictará en el plazo máximo de seis meses desde la entrada de la solicitud en el Registro Municipal. En dicha resolución se fijará la duración de la prórroga, previo informe favorable de los Servicios Sociales, una vez acreditada la necesidad.

No obstante, antes de entrar en la vivienda de emergencia, la persona beneficiaria deberá firmar un plan de intervención. Si la persona solicitante no firma este documento, se entenderá que desiste a la solicitud.

*Artículo 6. Procedimiento de actuación en caso de emergencia.*

En caso de extrema y grave necesidad, el/la trabajador/a social podrá proponer la incorporación inmediata de la persona solicitante a la vivienda, una vez firmado el documento, aunque la solicitud no se haya tramitado correctamente. Nada más hacerlo, se pondrá en marcha el procedimiento habitual antes descrito, con el fin de dictar la resolución definitiva. La resolución se dictará en el plazo establecido en el informe del técnico de servicios sociales en el momento de su incorporación al servicio.

En el caso de que la persona beneficiaria no colabore en el inicio o tramitación del expediente, tras haber accedido a la vivienda por procedimiento de urgencia, o durante la tramitación del mismo se compruebe que la resolución debe ser denegatoria, se le indicará la obligación de abandonar el servicio. A tal efecto, en el informe de el/la trabajador/a social se especificará el plazo en el que debe abandonar la vivienda. El no abandono del servicio supondrá la expulsión obligatoria de las personas usuarias en los términos previstos en el artículo 9.

*Artículo 7. Duración del servicio.*

La duración se fijará teniendo en cuenta las características del caso y las posibilidades de solución de la situación que motive la prestación del servicio. Con carácter general, la duración será de seis meses desde que se dicte la resolución. Con carácter general, la duración de 6 meses podrá ser prorrogada mediante resolución del órgano competente. En dicha resolución se fijará la duración de la prórroga, previo informe favorable de los Servicios Sociales, una vez acreditada la necesidad. En todo caso, la estancia máxima en el piso de acogida de urgencia no podrá exceder de 12 meses.

CAPÍTULO IV

EXTINCIÓN DEL ACOGIMIENTO

*Artículo 8. Extinción del acogimiento.*

Una vez instruido el correspondiente expediente, y a propuesta del Departamento de Servicios Sociales, podrá acordarse la extinción del servicio antes de la fecha prevista. A tal efecto, el órgano competente dictará resolución, previa audiencia de la persona interesada.

Dicha resolución será notificada a la persona beneficiaria.

El servicio se extinguirá por las siguientes causas:

— Finalización del tiempo de estancia.

— La renuncia de la persona usuaria al servicio.

— Fallecimiento.

— La desaparición de la causa de necesidad que motivó la prestación del servicio.

— La ocultación o falseamiento de los datos tenidos en cuenta para la prestación del servicio.

— Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para el acceso al servicio.

EK\CV GAO-I-2023-06696

— Zerbitzuaren jarraipena egiteko beharrezkoa den dokumentazioa ez aurkeztea.

— Beste erabiltzaile batzuei eta Udal langileei eraso fisikoak edo psikologikoak egitea.

— Zerbitzuaren ordainagirietan inolako arrazoirik gabe atzeratzea.

— Erabiltzaileek dituzten beste betebehar batzuk, araudi honetan jasota daudenak edo kasu bakoitzean sinatzen den dokumentuan ageri direnak, behin eta berriz ez betetzea.

— Arrazoirik gabe etxebizitzatik joatea.

— Gizarte Zerbitzuetako langileei edo horiek baimendutako beste pertsona batzuei sartzen ez uztea.

— Barne funtzionamendurako arauak ez betetzea.

— Esku-hartze planean sartutako eta egin beharreko ekintzak ez betetzea.

Zerbitzua iraungi egin dela adierazi ostean, erabiltzaileak zerbitzua utzi beharko du ebazpenean adierazitako epean.

*9. artikulua. Kaleratze administratiboa.*

Arautegi honetan adierazitako arrazoiengatik edo emandako epea bukatu izanagatik, larrialdiko etxebizitza utzi behar bada, baina bertan daudenek utzi nahi ez badute, utzarazpen administratibo bidez behartuko dira, eta hori egiteko ekainaren 13ko 1372/1986 Errege dekretua Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 120. artikuluak eta hurrengoak, edo hura ordezkatuko duen araudiak xedatutako prozedurak jarraituko dira.

V. KAPITULUA

ARAUBIDE EKONOMIKOA

*10. artikulua. Tasak.*

Dagokion ordenantza fiskalean urtero jarritako tasa ordaindu beharko dute zerbitzu honen erabiltzaileek.

*11. artikulua. Erabiltzaileen diru-ekarpena.*

Hilero ordaindu beharreko tasa kalkulatzeko baremo ekonomikoa ondorengoa izango da:

— 15.000 € bitarteko diru-sarrerak.

— 15.000 €-tik gora eta 21.000 €-ra arteko diru-sarrerak.

— 21.000 €-tik gora eta 25.000 €-ra arteko diru-sarrerak.

— 25.000 €-tik gora eta 35.000 €-ra arteko diru-sarrerak.

— 35.000 €-tik gorako diru-sarrerak.

Salbuespen gisa, tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira ez ohiko arrazoiek hori gomendatzen dutenean, baina horretarako aldez aurreko azterketa eta txosten soziala behar izango da eta dagokion organoak onartu egin beharko du.

*12. artikulua. Zerbitzuaren erabilerak eragindako gastuak.*

Udalak ordainduko ditu komunitate gastuak, argindarra, gasa, ura, higiezina eduki edo erabiltzearekin lotutako edonolako tasa edo zergak, zaborren bilketako tasa eta konponketek eragindako gastuak barne, non eta gastu horiek apartamentuan hartuta dauden pertsonek eragindakoak ez badira.

*Xedapen gehigarria.*

Arautegi honetan jaso gabeko kasu guztietan, edota sor daitezkeen aurreikusi gabeko kasu berezi guztietan, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak ahalmen osoa izango du kasu bakoitzean egoki iruditzen zaizkion neurriak proposatzeko.

Anoeta, 2023ko irailaren 11.—Egoitz Luisa Urkola, alkatea.
(6696)

— No presentar la documentación necesaria para el seguimiento del servicio.

— Las agresiones físicas o psicológicas a otras personas usuarias y al personal del Ayuntamiento.

— El retraso injustificado en los recibos de servicio.

— El incumplimiento reiterado de otras obligaciones de las personas usuarias recogidas en la presente normativa o en el documento que en cada caso se suscriba.

— Abandonar el domicilio sin causa justificada.

— Impedir el acceso al personal de los Servicios Sociales o a otras personas autorizadas por éstos.

— El incumplimiento de las normas de funcionamiento interno.

— Incumplimiento de las acciones a realizar incluidas en el plan de intervención.

Una vez declarada la caducidad del servicio, la persona usuaria deberá abandonar el mismo en el plazo indicado en la resolución.

*Artículo 9. Despido administrativo.*

Cuando por las causas expresadas en el presente Reglamento o por el transcurso del plazo concedido fuera necesario desalojar la vivienda de emergencia, y las personas ocupantes de la misma no la deseen abandonar, serán obligadas por el procedimiento administrativo de desahucio, siguiendo los procedimientos establecidos en los artículos 120 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, o normativa que lo sustituya.

CAPÍTULO V

RÉGIMEN ECONÓMICO

*Artículo 10. Tasas.*

Las personas usuarias de este servicio deberán abonar la tasa establecida anualmente en la ordenanza fiscal correspondiente.

*Artículo 11. Aportación económica de las personas usuarias.*

El baremo económico para el cálculo de la tasa mensual será el siguiente:

— Ingresos hasta 15.000 €.

— Ingresos superiores a 15.000 € y hasta 21.000 €.

— Ingresos superiores a 21.000 € y hasta 25.000 €.

— Ingresos superiores a 25.000 € y hasta 35.000 €.

— Ingresos superiores a 35.000 €.

Excepcionalmente, estarán exentos del pago de la tasa cuando razones excepcionales lo aconsejen, requiriéndose para ello el previo análisis e informe social que deberá ser aprobado por el órgano correspondiente.

*Artículo 12. Gastos derivados del uso del servicio.*

El Ayuntamiento abonará los gastos de comunidad, energía eléctrica, gas, agua, cualquier tipo de tasas o impuestos relacionados con la tenencia o utilización del inmueble, incluidas las tasas por recogida de basuras y los gastos derivados de reparaciones, salvo que tales gastos se originen por las personas acogidas en el apartamento.

*Disposición adicional.*

En todos los supuestos no contemplados en la presente normativa, así como en aquellos otros de carácter especial no previstos que puedan surgir, el Departamento de Servicios Sociales tendrá plena potestad para proponer las medidas que considere oportunas en cada caso.

Anoeta, a 11 de septiembre de 2023.—El alcalde, Egoitz Luisa Urkola.
(6696)

EK\CV GAO-I-2023-06696